

# Memoria versus giza eskubideak?

Jon M. Landa

EHUko Zuzenbide Penaleko katedraduna (akreditatua)

**B**akegintzari dago-kionez aspaldi honetan memoria-gaiek nabarmenak irabazi dute, ez esateagatik, antza denez, herriko plazaren erdi-erdian kokatu direla. Alderdi politiko bakoitzak memoriari heltzen dio, askotan memoria horren atzean ikusi nahi duen kontakizuna nabarmentzeko asmoz. Hala nola, batzuentzat memoriari badu zerikusia ETAK eragindako indarkeriarekin eta soil-soilik horrekin. Ikuspegi horretatik, ETA izan da terrorismoa sortu duen bakarra, eta politika publikoa erabili beharra dago hura deslegitimatzen. Beste batzuen aburuz, memoria lotu beharra dago, lehenik eta behin, Espainiako Guda (in)zibilaren ondorioz argitu gabe gertatu ziren giza eskubideen aurkako urraketa larriekin. Hauek ez dute ulertzen nola den posible memoria egin nahi izatea ETAr buruz, hurbil-gehurbileko gertakari «historikoa», eta ahaztea, ikusi nahi ez izatea, ETA baino lehenago egindako guda-krimenak, giza zateriaren aurkakoak, errepresioa, tortura, eta abar 1936tik hona. Esanda-koaz gain, memoriari ere barnean hartzen du, hainbatentzat, terrorismoaren aurka edota horren aitzakiaz Estatuak aurrera eramane duen guda zikina, tortura, polizia gehiegikeriak, zuzenean edo terrorismo parapolizial zein pertsona «inkontrolatuen» bitartez. Memoriari ari bagara, diote, ezin ahaztu Estatuak egin duena bai, baina ikertu, argitu, epaitu eta aitortu ez dena, demokrazian zein demokrazia aurretiko diktaduran.

Kasurik txarrean aipatu diskurtsoak, kontakizunak, modu isolatuan mantendu nahi dira: bakoitzak bere egia zor, autismo politiko hutsari kateaturik. Areago: kasurik txarrean, berriro diot, guztiz alde bakarreko kontakizuna erabili nahi da «borroka-rakoa»: norberaren «oinarri morala» sendotu eta gero, hura jaurlitigai gisa arerio politikoaren kontra aritzeko. Horretan memoria estalkia da: ez da horren erabilera sanorik egiten. Iraganeko inertzia-ariketa besterik ez da, lehenengo polarizazioari behin eta berriro ekiten diona. Memoria-politika hori

lotsagabea da, onartezina, erantzukizunik gabekoa, hutsala, gizartearekiko errespetu gabekoa, enpatiarik ezean oinarritua, bihotz-gogorkeriaz blai.

Zorionez, ordea, nire irudiko baiko-rren arabera, memoria-politika molde horiek oraindik ere zarata handia egin arren, historiaren maldan behera doaz. Gizartea, oro har, begirada anitzagoa izaten ari da, memoria desberdinak aitortzeko prest, memoriari elkarren kontra jartzeko beharrik sentitu gabe, egia jakin nahirik. Ez dut uste, askotan errepikatzen diren eskemak, nor bere zauriari besterik so ez egitearenak, egun gizarte-bilakaeraren isla jatorra direnik. Gizartea nekata zegoen hainbeste indarkeriaz eta orain, ETA geldi, hausnarketa inbertituak harrapatu dago, amases-tuka jardun ondoren amasa erritmo normalaren desioan, mina leundu nahian, balantzea egiteko tenorean.

Aipatu gizarte-jarrera elikatzen giza eskubideen ikuspegia ezin da galdtu. Giza eskubideen urraketa-mapa, behar bezala argitara ateraz gero, oinarri izango da gero horren gaineko memoria-politikak antolatzen. Memoria inkusiboak zera eskatzen du: giza eskubide urraketa guztiak onartzeko prest egotea. Onartzeko prest gero inori ez «leporatzeko» gogo ankerrez baizik eta, handik abiatuta, denon giza eskubideen kultura indartzeko gogo jatorrez.

Baina nola dago gure urraketa-mapa publikoa? Aurreratu al dugu motibazio-politikoko giza eskubideen urraketa-mapa, egia, adosteko orduan? Orain garbiago al dugu zer gertatu zen?

ETAr dagokionez, terrorismoaren aurkako politikaren gehiegikeria onartezinezkoak gorabehera, irudi

nahiko zehatza dugu hildako, zauritako, bahituriko, mehatxaturiko eta abarren inguruko. Ez dut esaten dena eginda dagoenik; bai, ordea, egia-politika oso bete delako agerikoa dela.

Egia-politiketan hutsunerik handiena, oraindik ere, Estatuak sortu edota estalitakoan dugu: alegia, motibazio politikoz egindako hilketa, lesio, desagerarazpen, tortura eta abarretan, dela funtzionario publikoen, dela terrorismo parapolizialen, dela inkontrolatuen eskutik. Hutsunea nabarmena da, baina ez erabatekoa: ikuspegi instituzionaletik, eduki ditzakeen muga guztien gainetik, Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretua dugu, polizia-abusuen goitizenez ezagutzen dena. Dekretua Euskadiko alderdi sozialistak onartu zuen aurreko legegintzaldiaren bukaeran eta, oztupoz beteriko ibilbidea eduki arren, aurrera darrai.

Bidea bigarren urrats instituzionala guztiz beharrezko zein premiazkoa da: justizia arrazoiak direla-kausa, baina bai eta arrazoi estrategikoak direla-medio ere. Dekretoak lehi txiki bat zabaldu zuen 1960tik 1978ra arteko Estatuako giza eskubideen urraketa larri jakin batzuk aitortzeko. Hori dela-eta, ate joka ditugu, inoiz baino areago, 1978tik aurrerakoak. Batzuek diktaduran gertatu zena aitortzeko prest bai izango zirela, baina demokrazian jazotakoa aitzitik, ez horrenbeste. Mikroklima egokia sortuko bagenu ordea denon artean, 1978tik aurrerako giza eskubideen urraketen gaineko lege bat onartzeko, legegintzaldi honek egia-politika adostua zabalitzearekin batera, memoria-politika egokia ere elikatzen ekarpen suprapartidarioa egingo zen, denon mesederako.

Artikulu honen izenburuak airean uzten zuen galderari helduta, alegia, memoria-politika sektarioak giza eskubideen ikuspegia ordeztu, estali, desagerarazi (versus) nahi duenari helduta, gure herrian bizi garen unean guztiz kontrakoa da aldarrikatu beharrek: hots, memoria eta horren taxuzko politika inklusiboa, giza eskubideetatik bideratu behar dela. Baina horrekin familia politiko nagusien erantzukizun-ariketa behar du abiapuntu: giza eskubideen urraketen politika publikoari segida ematearena. Segida, nire aburuz, 1978tik aurrera motibazio politikoz egindako estatu-indarkeriaren legearen bitartez guztatu beharko litzatekeena hain zuzen ere: oxala lehenbailehen hura adostuko balitz!

**Memoria eta horren taxuzko politika inklusiboa giza eskubideetatik bideratu behar da. Baina horrekin familia politiko nagusien erantzukizun-ariketa behar du abiapuntu**

**H**an eta hemen aditu dut gizonetako atzerapauso egin beharko zutela borroka feminista emakumei uzteko eskusiban, batzuetan oso argudio konbentzigarriekin. Berez, ados egoteko prest egon naiz. Baina duda pizten hasi zait.

Lagun bati aditu diot gizona izanik feminismo kontuetan iritzia ematen hanka ez sartzeko

trikimailu bat: feminismo kontuetan irizirik ez ematea. Nire inguruko gizonengan sumatzen dudak kikitzeak aholkuari jarraitzen diotelako frogara izan zitekeen.

Berez, gizona (gizon heterosexuala) nora

ezean ikusteak ez dit gupidarik sortzen, baina elkartasun erakustaldien atzean egon daitekeen zurrubidea salatzea gauza bat da eta beste bat indarrak zahutzea.

(Nola bereiz borroka feminista emakumei uzten dien gizonengandik solidario begirunetsua eta axolagabe hegemoniazalea?)

Ideiek nagusi behar duten pentsamolde batetik nator eta printzipioz ez luke axola beharko nor esaten duen, zer baizik. Baina azkenaldian ezustean harrapatu dut neure burua feminismoari buruzko delako txio edo zutabea gizon batek ala emakume batek idatzi duen begiraturaz, onarpena eman ala ez erabakitzeko. Badaezpada, zu ere nirearekin ados egon ala ez baldin bazabilta, jakin ezazu testu hau ez duela Angel Errok idatzi.

## Elektroiak

**E**insteini ez zitzaion iruditzen oso urruneko bi objektu bat-batean eta berehalakoan komunika zitezkeenik. Teoria kuantikoak aurrekusten zuen aukera horri ez zion puntarik ez ipurdirik ikusten, azken finean, naturan ez dagokeelako ezer argia baino azkarrago transmititu daitekeenik, eta hain zuzen horregatik, informazioak beti izango

lukeelako denboran desfasea, batetik bestera iristerakoan. Ekintza fantasmagorikoa zela zioen hark, aukera hori erreala izan ez zitekeen neurrian.

Zientzialariak jo eta su aritu omen dira geroztik, misterioa argituko luke-

en esperimendua asmatu nahian. Teoremak eta metodologiak proposatu izan dira, John Bellek 1964an aurkeztutakoa esate batera, Einstein oker zegoela eta teoria kuantikoa zuzen ari zela frogatzeko, baina erdian batetik ez bazen, bestetik egiten zuten kale beti.

Nature aldizkariak behin betiko frogara aurkitu izana zabaldu du berriki. Ekintza fantasmagorikoa erreala dela alegia, 1.280 metroko distantziara diamante banatan harrapatutako bi elektro instantean komunikatzea eta «ados jartzea» lortu dutelako Holandan, eta honen bestez, egia absolutu bat eraistea. Eta ez dakit nola kristo egin duten, baina esango nuke agintariak -eta denok ere- badugula esperimenduetatik nahiz partikuletatik zer ikasia.



JIRA  
Angel Erro



BIRA  
Garbine Ubeda